

txintxarri



HARA...!

TXINTXARRI aldizkariak 25 urte



Pablo Mutiozabal, 2
LASARTE-ORIA
cristina_arteaga@ges.es

Ges

ASEGUROAK

Tel. 943 36 58 99

Kalitatezko zerbitzua da gure
lanaren arrazoia

**ZORIONAK TXINTXARRI!
25 URTE HAUETAN
EUSKARAZ OHITU GAITUZUE!**

- ✓ Etxeko aseguroak ✓ Komunitateak ✓ Kotxeak ✓ Dendak
- ✓ Erretiroak ✓ Istripuak ✓ Enpresak ✓ Bizitza aseguroak
- ✓ Eta gehiago!





25 urte euskara etxe guztietan sartzen

"Aldizkari bat betetzeko nahikoa informaziorik ba al dago Lasarte-Orian?". Galdera horri erantzun behar izan zioten orain dela 25 urte TXINTXARRI sortzeko lanetan zeudenek. 1993.urteko urriaren lehen argitaratu zuten lehen zenbakia, gogo eta ilusio bereziarekin. Ez da gutxiagorako: herri bat euskalduntzeko tresna paregabea da aldizkari bat. Denborak arrazoia eman die hasiera hartako ekintzaileei: 25 urtean 1.435 zenbaki argitaratu dira. 8.000 aletako tirada du egun, eta Lasarte-Oriako etxebizitza guztietan sarrarazten du euskara.

Euskarazko hedabideek berebiziko garrantzia dute hizkuntza normalizatzeko ahaleginean; errealitatea islatzen eta eraikitzen dute. Hizkuntza jartzen dute erdigunean, eta, egunerokoa kontatzen dute ahalik eta modu sinplenean. Tamaina handiko zeregina izan du horretan TXINTXARRI-k azken mende laurdenean: lasarteoriarrei euskaraz informazioa jasotzeko, entretenitzeko eta hezteko aukera eman die.

Ttakun Kultur Elkartearen jakitun izan dira hasieratik komunikabideen garrantziaz. Hori dela eta, hasierako helburua zuten Lasarte-Orian euskara bultzatzeko herri

aldizkari bat sortzea; elkarte sortu eta soilik bi urtera egia bihurtu zen amets hura.

Hamabostekaria hasieran, astekaria gero, egunkari euskarrian bolada batean... 2017. urtea hastearekin batera aldatu zen azkenekoz herri aldizkariaren azala eta gorputza, berriro astekaria bihurtzeko.

Asko aldatu da Lasarte-Oria 25 urtean, baita kazetaritza egiteko modua ere. Hastapenetan tabako kez betetako bulego batean eztabaidatzen zituzten asteko gaiak, eskuko telefonorik gabeko garaian. Orduantxe ikasi zuten askok ordenagailu bat pizten. Egun, ordea, zorion agur asko Whatsapp bidez jasotzen dira. Alor horretan indar berezia egiten ari da aldizkaria, paperekoari eustearekin batera teknologia berrietara moldatzeko. Hain zuzen, horixe da epe laburrera begirako apustua: *txintxarri.eus* ataria berritzea, eta sare sozialei are bultzada handiagoa ematea.

Gainerako hedabideen antzera, herri aldizkariak sufritu du prentsa idatziaren gainbehera. Publizitateko diru sarrerak ezinbestekoak dira proiektu honen bideragarritasuna bermatzeko, baina salmentak asko

jaitsi dira. Ttakun Kultur Elkartearen langileen borondate irmoari esker egin du aurrera TXINTXARRI-k urte horietan. Nahitaez aipatu beharra dago erakunde publikoen babesa, batez ere Lasarte-Oriako Udalarena. Haiek gabe ez luke horren bide luzea egingo aldizkari honek.

Langile eta laguntzaile asko eta asko pasa dira TXINTXARRI-tik. Praktiketako ikasleak, kazetari trebeak, zuzendari tematiak, laguntzaile eskuzabalak... Edonola ere, hemerrotekako zenbaki zaharrak begiratu besterik ez dago ohartzeko hedabidearen filosofia ez dela aldatu, hasierako irizpideari eutsi baitiote ondorengo langileek ere. Herritarrak euskarara erakartzeko helburua betetzeko, aldizkariak beti errespetatu eta islatu du Lasarte-Oriaren aniztasuna. Denen bozgorailu izaten saiatu da, eta, bide horretan, herriko elkarte eta eragile guztiek izan dute tokia orri hauetan. Etorkizuna gorabeheratsua izan arren, horrela izaten jarraituko du. Izan ere, Lasarte-Oria aldatu ahala aldatuko da TXINTXARRI ere.

TXINTXARRI KO ERREDAKZIOA

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Mailu Arruti, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Naiara Goikoetxea.

Informatikoa

Befiat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Legue Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Berrikuntzaren eta ilusioaren zurrunbiloan harrapatuta

TXINTXARRI-ren hastapenak oroitu dituzte Nekane Zapirainek eta Maialen Suberbiolak, aldizkariko hasierako langileek. "Artisauen lana egiten genuen"



Nekane Zapirain eta Maialen Suberbiola, TXINTXARRI-ko lehen lantaldeko kideak, lehen eta azkenetariko zenbakiekin. TXINTXARRI

Adrian Garcia

Mende laurdena pasa da, baina oraindik ongi gogoratzen dituzte kontu eta pasarte asko. Hemerrotekako zenbaki zaharrak esku artean hartuta elkarri begiratu diote irribarretsu, aspaldiko abenturak gogora ekarrita. Maialen Suberbiola eta Nekane Zapirain TXINTXARRI-ko hasierako lantaldean aritu ziren. Lehena publizista zen; bestea kazetaria. Gazte eta ilusioz beteta ekin zioten proiektu berri bati. Ez zuten nolanhiko helburua: Lasarte-Oria herri aldizkari baten laguntzarekin euskalduntzea.

Bederatzi urte egin zituen Suberbiolak aldizkarian, eta Zapirainek beste sei inguru. Aldizkaria sortu aurretik ere urte batzuk eman zituzten lanean. Arrasatera bidaia asko egindakoak dira, hango herri

aldizkaria ezagutzeko eta aholkuak jasotzeko. Edonola ere, orduan ez zuten pentsatzen proiektuak mende laurdena iraun zezakeenik. "Ez zuten inork uste, ez Arrasaten, ez Donostian, ez inon; ez guk, ez beste inork", dio Zapirainek.

TXINTXARRI-ko lantaldea lau pertsonak osatzen zuten 1993an. Zapirain eta Suberbiolaz gainera, Malu Garmendia kazetaria eta Mila Eizmendi zuzendaria ere bazeuden. TXINTXARRI-k ezin izan du haiekin harremanetan jarri erreportajea osatzeko.

Suberbiola bera arduratu zen proiektua orduko alkateari, Ana Urtxuegiari, aurkezteaz. "Oso izen itsusia zuela esan zidan: '¡No me gusta nada!'. Halere, gurekin beti portatu zen ondo".

Hain justu, izenaren bueltan eztabaidatu zuten hasiera haietan. Sebastian Kerejeta

Ttakun Kultur Elkarteko lehen lehendakariak proposatu zuen. "Biltzar bat egin zen, eta hor erabaki zen. Hark zioen pertsona txintxarria jakin-min askokoa zela, kuxkuxeroa", oroitu du Suberbiolak. Lan asko egin zuen Kerejetak TXINTXARRI sortu ahal izateko. Bozketa egin, eta izen hori adostu zuten denen artean.

Aldizkariaren berri emateko prentsaurreko bat eman zuten, Manuel Lekuona kultur etxean. "Jendea segituan enteratu zen, baina beste askori azalpen asko eman behar izan zitzaizkion, batez ere euskaraz ez zekitenel", esan du Zapirainek.

Korronte jarraika

Garai bereziak ziren haiek. Ttakun sortu eta gutxira hasi ziren Arrasaten, Bergaran eta beste zenbait tokitan euskarazko herri hedabideak eraikitzen.

"Korronte horri jarraitu genion", dio Suberbiolak. Arrasatera egindako bisitaldi batean Anne Igartiburu ezagutu zuten; orduan Arrasate Telebistan egiten zuen lan. "Gu ere egon ginen telebista bat sortzekotan Lasarte-Orian, baina ez zen atera". Aldizkariak topaketak egiten zituzten, eta horri esker partekatu ahal zituzten esperientziak beste kazetariekin. "Denok ezagutzen genuen elkar, ikasle garaitik gehienetan", azaldu du Zapirainek.

Esan ohi da gustuko aldapan nekerik ez dela. Horrelaxe egiten zuten lan lehen urteetan. "Gau osoak pasatzen genituen lanean. Gogoratzen? Argazki hau ostiral batean gaueko 11:00etan atera genuen", esan dio Zapirainek lankide ohiari.

Orduan ez zituzten marrazteko ordenagailuko programak, eta eskuz egiten zituen iragarkiak Suberbiolak. Askotan marrazkiak hutsetik egin behar izaten zituen. Behin Goxogikoak esan zion tarta erotikoak ekarriko zituela. "Guk ere ez genekien zer ziren; ezkondu aurreko festetarako dira. Baina horrelakoak ez zeuden hemen, eta marraztea

tokatu zitzaidan. Berak esaten zidan nolakoak ziren, eta Rotringarekin marrazten nuen. Herrian ere berrikuntza zenez, sekulako ikusmina sortu zuen. Horrela ibili behar ginen, dena asmatzen".

Oraingo diseinu programarik gabe, "artisauen lana" egin behar zuten kazetari eta publizistek. Hizkiak kontatzen ibili behar zuten, jakiteko zenbateko espazioa bete behar zuten. "Macintoshak ez zuen euskarazko zuzentzailerik, eta hitza erditik moztzen zuen. tz banatu egiten zuen... Berritua dena irakurri behar izaten zen beste hitz bat jartzeko".

Laguntzaile sarea

Argazkiak egiteko taldetxo bat zuten, baina bulegoko komunean bertan errebelatzen zituzten. "Nahiko komeriak izaten genituen. 'Ez ireki atea', oihu egin behar genuen badaezpada ere".

Soilik lau langilek egiten zuten lan TXINTXARRI-n, baina izaten zuten kanpoko laguntza. Argazkiak egiteko taldeaz gainera, laguntzaile sare bat ere bazuten. "Guk ez genuen dena egiten, baina bai prozesu osoa kontrolatu".

Thailandia

NOAOO
BIDAIAK

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Erredakzio kontseilu bat zuten hasierako garaian, eta herrian pil-pilean zeuden gaiei buruz eztabaidatzen zuten, astean behin. "Hori oso garrantzitsua zen. Lau kazetariren artean zirkulua asko ixten da". Askotariko jendeak parte hartzen zuen kontseilu haietan, eremu askotan jarduten zutenak. "Zinema arlokoak, maisuren bat... bileran gaiak proposatzen zituzten, eta eztabaidatu egiten genuen gero". Astelehen iluntzean bildu ohi ziren.

Tresna garrantzitsua iruditzen zaie kontseilua, erredakzioari "arnasa freskoa" ematen ziolako. "Azkenean, aldizkaria lauren eskuetan geratzen bada, bere baitan ixteko arriskua du". Horrez gainera, Internet eta sare sozialik gabe, askotan albisteen eskizetan joan behar izaten zuten. "Orain ia astebururo dago zerbait. Garai hartan albisteen atzetik atera behar genuen".

Hasierako laguntzaileetako bat zuten Joseba Egaña; erretiroa hartuta zegoen, eta TXINTXARRI-koek behar zuten errekadu guztiak egiten zituen. "Bankura joaten zen, zigiluak erosten zituen... Askok laguntzen zigun. Afariak egiten genituen gero laguntzaileekin".

Atal arrakastatsuak

Zuri-beltzeko zenbakiak berrikusten, atal berezi batzuk nabarmendu dituzte aldizkariko langile ohiek. Herrikide baten gazteetako argazkia argitaratzen zuten lehen, eta lehiaketa antolatzen irakurleen artean, ea nor asmatu argazkikoa zein zen. "Arrakasta handia zuen, erabatekoa". Martin Berasategiren laguntza "izugarria" izan zuten. "Afariak eta nahi genuena eskaintzen zigun". Bulegoan izaten zuten argazkia jarrita, eta postontzi batean sartzen zituzten parte hartzaileek haien izenak. "Jende asko etortzen zen bulegora". Liburutegi zaharrean zegoen orduan Ttakuneko egoitza.

Inkestak ere egiten zituzten, gai jakin bati buruz herritarrek zer pentsatzen zuten galdetzeko. "Zaila izaten zen, jendeak ez zuelako atera nahi izaten. Oso polita zen; irakurleek oso gustura irakurtzen zuten, baina kosta egiten zen egitea". Hain zuzen, iraganari keinu gisa zenbaki honetan argitaratu da kale inkesta horietako bat.

Lehenengo azala nola egin zuten ere kontatu dute. "Nire lagun minak dira Arkaitz eta Kris, eta haiei esan nien argazkirako jartzeko", esan du Zapirainek. 25 urte geroago, TXINTXARRI berriro jarri da harremanetan haiekin, azal berdintsua argitaratzeko urteurrenaren aitzakian.

Azala, 25 urte geroago

25 urtean gauza asko aldatu dira Lasarte-Orian, baina baita kazetari ogibidean ere. "Lehen eskuz egiten genuen dena, maketazio guztia". Ordenagailua idazteko bakarrik erabiltzen zuten. Gainera, berrikuntza ziren orduan gailu horiek. "Hemen ikasi genituen erabiltzen". Internet eta eskuko telefonoak ez ziren existitzen, eta, ondorioz, harreman pertsonalek inoiz baino garrantzi handiagoa zuten. "Ahotik ahorakoak asko funtzionatzen zuten. Askotan etxeetara ate joka joaten ginen informazio bila", dio Zapirainek.

Halere, beste gauza batzuk ez dira aldatu urteak pasa arren. "Txema Valles beti berandu iristen zen prentsaurreko guztietara, eta beti itxaron egin behar zitzaion". Izan ere, hasiera hartan *Diario Vasco*-ko berriemailearen laguntza izan zuten. "Gaztea zen Valles ere, baina asko laguntzen zigun. Haren atzetik ibiltzen ginen".

Beste gauza batzuk ere berdin jarraitzen dute: euskarazko hedabideen menpekotasuna. Garai hartan ardura handia zuen Suberbiolak publizitateko arduradun gisa. Izan ere, diru laguntzek aldizkariaren zati bat finantzatzen zuten (gaur egun bezala), eta publizitatea saltzen lortzen zen aurrekontua osatzea.

Haatik, publizitate gehiago saltzen zen lehen. "Ikaragarria da zenbat publizitate saltzen genuen. Gehienak, gainera, erdaldunak ziren. Denek jartzen zuten, denek egon nahi zutelako TXINTXARRI-I".

Prentsa idatziak sufritutako gainbehera ikus daiteke urtez

INTERNETIK GABE, HARREMAN PERTSONALEK GARRANTZI HANDIAGOA ZUTEN

urte herri aldizkariaren orrietan. Gero eta zailagoa baita publizitatea sartzeko. "Orain ere krisia badago, baina garai haiek ere zailak ziren, enpresa asko kinka larrian zeudelako". Hasiera batean kosta egiten zitzaien baiezkoak lortzea, baina negozioek ikusten zutenean gainerako guztiek jartzen zutela, ez zuten zalantzarik egiten.

Era berean, argitalpena berria izateak bazituen abantailak, Suberbiolaren eta Zapirainen ustetan. "Orduan berrikuntza zen zure bizilagunaren argazkia ikustea aldizkarian. Orain errotuta dagoen zerbait da".

Argazkien indarra

Bestalde, Suberbiolak uste du egun irudiek garrantzia galdu dutela. Izan ere, egunotan edozein euskarritan hamaika irudi aurki daitezke. "Lehen desberdina zen. Irudi bat argitaratzen zenuen eta inpaktu handiagoa zuen".

Esaterako, Kutxako Fototekako argazki zaharrak argitaratzen zituzten askotan, eta irakurleek estimu handitan zituzten. "Orain ez du zentzurik, edozeinek ikus ditzake eta Interneten". Orduan, ordea, oso arrakastatsuak ziren, horrelako irudiak ikusteko aukera bakarra eskaintzen baitzuen herri aldizkariak. "Dena zen berria. Berritasun horrek ekarri zuen gorpil bat. Lan asko egiten genuen, baina asko ginen, eta ilusioa handia zen. Oso ondo pasatzen genuen".

Halere, garai politak izan arren, ez zaizkie ahaztu inprentara bidali aurretik pasatzen zituzten urduritasunak. "Uste genuen ez ginela iritsiko inprentara". Gaueko 10:00ak aldera bakarrik geratu ohi ziren, gainerako laguntzaileak etxera joaten zirelako. Gau pasa asko egin izan dituzten erredakzioan. "20 urte daukazunean berdin zaizu, ilusioa handia da eta". Nolanahi ere, zenbakia bidalita ere ez zen guztiz baretzen ezinegon. "Nola geratu zen ikusi beharra zegoen".

Gaurko TXINTXARRI esku artean hartuta, Suberbiolari ez dio euskarriak konbentzitzen. "Paper honetan oso zaila da argazki on bat egitea. Oso zaila da publizitatea ongi ikustea. Nire ustez, herri aldizkari batean beharrezkoa da aurpegiak ongi ikustea argazkietan. Sarean ongi ikusten dira PDF



Lehen lantaldea: Malu Garmendia, Mila Eizmendi, Nekane Zapirain eta Maialen Suberbiola. TXINTXARRI




Suberbiola, Garmendia eta Zapirain, TXINTXARRIren lehen bulegoan. TXINTXARRI



Suberbiola arduratzen zen publizitatea saltzeaz. TXINTXARRI



Erredakzio kontseiluaren laguntza izaten zuten lantaldeak. TXINTXARRI



Laguntzaile sare zabala zuten lehen urteetan. Irudian, Joseba Egaña. TXINTXARRI



Ezker Batua, Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta EAJko ordezkariak, Asier Odriozolak gidatutako mahaingurua, 1995eko udal hauteskundeetan. TXINTXARRI



Soilik Ttakuneko kideen artean banatzen zen hasiera batean. TXINTXARRI



Antza inprimategian inprimatzen zen hasieran. Egun, Noticias de Navarra arduratzen da. TXINTXARRI

euskarrian. Eskura jasotzen duzuna ere ongi ikusi beharko litzateke".

Edonola ere, edukia interesgarria zaie bie: "Gure garaian ez genituen elkarrizketa luzeak egiten. Oso interesgarriak dira, gustura irakurtzen ditugu".

Horrez gain, garai hartako laneko giroak ez du zerikusirik egungo erredakzioetan dagoenarekin. Izan ere, lehen normala zen erretzea edozein tokitan. "Kez beteta egoten zen erredakzioa beti, asko erretzen genuen. Haurdun nengoenean esan nien ea posible zuten pixka bat gutxiago erretzea, baina zaila zen", oroitu du Suberbiolak.

Banaketak ere bere lanak eskatzen zituen. Inaxio

Urruzola eta Antton Garin arduratzen ziren horretaz. Ostiralero zerrenda batzuk inprimatu behar zituzten, jakiteko etxe bakoitzean zein postontzietan utzi behar zituzten aleak. "Hasieran 3.000 inguruko tirada izango zuen. Ttakuneko bazkideek eta publizitatea jartzen zutenek jasotzen zuten bakarrik, eta zerrenda horietan agertzen zen zein etxeetan utzi behar zen". Urruzola arduratzen zen

**EGUN IRUDIAK
INDARRA GALDU
DUELA USTE DUTE:
"EDOZEIN TOKITAN
DAUDE ORAIN"**

zerrenda horiek osatzeaz. Garinek, berriz, baserrietako banaketa zuzentzen zuen.

Ikastolako ikasleek egiten zuten banaketa gero. Karroak uzten zizkieten, zerrendarekin batera, jakin zeizaten non utzi behar zuten. "Gero jendea kexatzen hasi zen, TXINTXARRI jaso nahi zutelako ere". Jende asko joaten zitzairen bulegora aldizkaria jaso ez zutelako etxean.

Mahai-inguruak

Papereko argitalpena ez ezik, beste hamaika gauza ere antolatzen zituen TXINTXARRI-k. Alde batetik, lehiaketa mordoa, herriko komertzioekin elkarlanean. Bestetik, hitzaldiak eta mahai-inguruak, herrian denon ahotan zeuden gaiekin.

"Gaur egun elkarbizitza aldetik gauza asko aurreratu ditugu herrian. Garai haietako zailak izan ziren; Froilan Eleesperen hilketa bizi izan genuen... Halere, gu beti saiatzen ginen alderdi guztietakoak erakartzen".

Nahiz eta zenbaitetan giro politikoa zakartua egon, ongi moldatzen ziren politikari guztiekin. Elkarrizketa batzuk egin zizkion Zapirainek Urtxuegiari: "Oso gogorra zen, azken hitza beti berak eduki

**NAHIZ ETA GIRO
POLITIKOA
ZAKARTUTA EGON,
ONGI MOLDATZEN
ZIREN POLITIKARIEKIN**

behar zuen". PSE-EEko norbaitekin hitz egin nahi bazuten, derrigortuta zeuden alkatearen galbahetik pasatzera. "Hark erabakitzen zuen dena. Gonbidatzen genituen mahai-inguruetara, baina ez ziren etortzen".

Lasarte-Oriaren aniztasuna kontutan hartzen saiatu da beti TXINTXARRI. Horregatik, harreman ona izan du hasieratik elkarte eta eragile guztiekin. "Politika oso bizia zegoen, eta beti egoten ziren gauzak. Baina ez genuen sekula presiorik jasan, nahiz eta tentsio uneak pasa". EAJko Juan Mari Alkorta eta Joxe Mari Agirretxe orduan HBko zinegotziaren bisita asko jasotzen zituzten. "Asko lagundu zuten".




1. alea



Aurkezpena



Mahai-inguruak



Gida komertziala



100. alea
5. urteurrena




Lasarte-Oriaren historia argitalpena



200. alea - lantaldea




Txintxarri astekari



Itxura aldaketa



Formatu aldaketa



1.000. alea
Itxura aldaketa
(papera eta weba)
Mugikorrerako aplikazioak
Twitter eta Facebook



20. urteurrena





25 urteko ibilbidea

Hamabostekaritik gaur egunera arte



600.alea txintxarri.info sortzen da

2007

2004

2009

750. alea eta webaren itxuraldaketa



2012



Formatu aldaketa Instagram



Lasarte-Oria Bai! krosa -1 dortsala

2017



txintxarri.eus .eus domeinu aldaketa

2014

2018



25 urte bete ditu TXINTXARRI aldizkariak. Zer iruditzen zaizu urte hauetan guztietan egindako lana?

Euskara praktikatzeko gogoz?

Astindu mingaina!

zatoz! eta parte hartu!



Informazioa: Ttakunen bulegoan •
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389



Bernaitz Odriozola
46 urte

Herriarentzako ezinbesteko lana egiten du TXINTXARRI-k. Astero-astero herriko elkarte eta eragileen lanaz enteratzen naiz herri aldizkariari esker. Gainera, euskaraz izateak indarra eta garrantzia ematen dio.



Ana Eceiza
44 urte

Uste dut herriarentzat garrantzitsua dela TXINTXARRI bezalako hedabide bat edukitzea, Lasarte-Orian gertatzen denaren berri izateko. Etxean ohitura dugu irakurtzeko, gustatzen zaigu. Ezagunen bat ateratzen denean esaten dugu gure artean: "Irakurri al duzu aste honetako TXINTXARRI?". Ileapaindegia ireki eta berehala, publizitatea jarri nuen.



Mamen Barandiaran
51 urte

TXINTXARRI ez balego, herrian gertatzen diren gauza askori buruz ez nuke ezer jakingo. Euskaraz ez naiz gehiegi moldatzen, baina semeari esaten diot interesatzen zaizkiten artikulua itzultzeko. Halere, errazago ulertzen dut irakurritakoa; ikasteko balio dit aldizkariak.



Martin Arruabarrena
62 urte

Oso gustura leitzen dugu etxean. Polita da herriko jendea ikustea argazkietan. Gero familian komentatzen ditugu hau eta bestea. Festen ingurukoei buruz jakiteko eta umeen urtebetetzeak ospatzeko erabiltzen dugu. Noiz etorri desiatzen egoten gara.



Maria Luisa Estanga
69 urte

Herriko notiziak oso inportanteak dira, eta beste egunkariak ez dute horien berri ematen. Oso gustora jasotzen dugu TXINTXARRI astero-astero. Jende ezaguna ikustea gustatzen zait. Gainera, gogoko dut irakurtzea. Nire garaian dena gazteleraz ikasi genuen, eta ondo dago euskaraz irakurtzea. Gainera, burua argi mantentzeko garrantzitsua da.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Txintxarri, ozen

Batzuetan iruditzen zaigu gure artean dauden pertsona, elkarte, erakunde, komunikabide eta abarrak betidanik daudela, hain dira eguneroko guretzat, non betikotasun bat ikusten diogun. Baina pertsonak jaio egiten gara, eta elkarte, erakunde edo komunikabideak ere bai. Hasiera data bat izaten dute, lehen urrats neketsuak ematen dituzte eta sendotzen joaten dira gero, betikotasun kutsu bat lortzen duten arte.

Aitzinean idatzitako horrek guztiak TXINTXARRI herriko aldizkariarentzat balio du. Orain 25 urte sortu zen edo sortu zuten. Hor asko dira barrua hustu zutenak erditze lanetan, eta beste batzuk alboan egon garenak, beraz hitz hauek ez doaz protagonista baten izenean, aldiz, lekuko paperean egindakoak dira.

Informazioa eskuarki telebista, irrati eta egunkari bitartez jaso izan dugu beti, baina horietan oso gutxitan agertzen dira inoren herriko gorabeherak. Eta agertzen direnean gauza txarregatik izaten da: suterren bat, hilketa bat, istripuren bat eta halakoetan, nekez egunerokoen berri emateko. Horregatik izan da TXINTXARRI mende laurden honetan, eta horregatik jarraitzen du izaten ezinbesteko lanabes herriaren berri jakiteko. Hor hartu dute leku, edizioa joan edizioa etorri, herrian azpimarratzekoak izan diren ekitaldi, gatazka, ospakizun eta intereseko beste hamaika kontuk. Horregatik, zorionak! Horregatik, eta 25 urte betetzeagatik, zorionak! Eta batez ere, segi ozen txintxarria jotzen.



NEURE KABUZ

JONE MIREN HERNÁNDEZ

Mila eta bostehun karaktere

TXINTXARRI aldizkarian argitaratzen diren hau bezalako zutabeetan mila eta bostehun karaktere biltzen dira. Karaktere horiek gogoeta bati ematen diote forma. Lehendabizi burua eragin behar da ideia baten bila. Batzuetan iltzatuta geratu zaigun kaleko eszena bat izan daiteke abiapuntua, edo herriko denda batean entzundako elkarrizketa, edo aurreko asteburuan egindako ospakizuna. Gogoetarako lehengaia edonon sor daiteke. Normalean ideia bat baino gehiago agertuko dira hautagaitzara. Batekin eta bestearekin probatu eta azkenean baten indarrak harrapatuko gaitu, gainontzekoek baino aukera gehiago ematen digutelako testua garatzeko eta borobiltzeko. Idazten hasi eta, ideia batetik bestera salto eginez, argudioak josten joango gara tartean iritziak ez ezik, kezkek, kritikak, desioak..., ere agertuz. Mila eta bostehun karakterek ez dute ematen bide luzea egiteko, baina zutabegileak bide hori disfrutatzen du hausnartzea eta idaztea gogoko duelako. Polita izaten da azken karakterea idatzita utzi eta atzera begiratzea hitzen jarraiak utzi duen arrastoa ikusteko. Eta nahiko nuke testu honen azkenengo karaktereak 25 zenbakiaren forma irudikatzea. 25 urte pasa baitira TXINTXARRI aldizkaria sortu zenetik, ilusioz beterik, gogotsu eta ausart. Bitartean, aldaketak joan dira pilatzen, eta, pentsatzekoa denez, gorabeherak ere bai. Baina, gaur eta hemen, Lasarte-Orian, komunikabide bat dugu euskaratik eta euskaraz herri gisa pentsatzeko eta irudikatze. Mila eta bostehun karaktere euskarari forma emateko. Hala izatea nahiko nuke luzerako, gutxienez orain betetzen diren urteak bezain beste. Beste 25.



txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

***Eskerrik asko bide luze honetan
Txintxarri egiten lagundu
diguzuen guztioi!***





Aurreneko zutabeko martxalariak familia argazki erraldoia atera zuten Zubietara bueltan jaitsi aurretik. TXINTXARRI



Ertzainek obretaraino iristeko bideak itxi zituzten. TXINTXARRI

Martxa baketsuari erantzun bortitza

Ehunka pertsonak hartu dute parte erraustegiaren aurkako martxan, asteburuan: bi zutabetan banatu eta obren eremura abiatu dira, ertzainekin topo egin arte. Hiru aldiz kargatu dute agenteek zutabeetako bateko kideen aurka, zaurituak eraginez

Iñigo Gonzalez Sarobe ZUBIETA

Eragozten saiatu dira, baina ez dute lortu: erraustegiaren aurkako aldarriak obren eremura iritsi dira, beste behin. Lasarte-Oriatik eta inguruko herrietatik etorritako ehunka pertsona elkartu ziren Zubietan, igandean, Gipuzkoa Zutiketik antolatutako martxan parte hartzeko. Giro ederrean abiatu ziren, bi

zutabetan banatuta, ertzainekin topo egin zuten arte: obretara sartzeko bideak ixten ari ziren agenteak. Negoziatzen saiatu eta gero, aurreneko zutabeetako herrira jaitea erabaki zuten.

Bigarren zutabeetako ere bide bera hartu zuten, baina berriro obretara igotzea erabaki zuten gero, agenteak ezustean harrapatuz. Ia-ia erraustegiraino

iristea lortu zuten, segurtasun indarrek hiru aldiz kargatzea erabaki zuten arte, zenbait martxalari eta kazetari zaurituz.

Bidean trabak topatu arren, martxalariak lortu zuten familia argazki erraldoia ateratzea eta erraustegiaren aurkako aldarriak 'zero gunera' eramatea. "Oso serio hartzen gaituzte; iaz baino agente gehiago bidali dituzte,

eta dronearen ordeaz, helikopteroa ibili da zeruan bueltaka".

"Berriro geratuko dugu"

Oinei eragin aurretik, eskuek egin zuten lana igandean: Zubietan bildutakoek txalo artean hartu zituzten pasa den legealdian erraustegiaren egitasmoa geratzea lortu zuten ordezkari politikoak: Ainhoa Intxaurrendieta GHK partzuergoko lehendakari ohia; Juan Karlos Alduntzin eta Iñaki Errazkin Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen arduradun izandakoak; Usurbilgo eta Hernaniko alkate ohi Xabier Mikel Errekondo eta Marian Beitialarrangoitia; eta Lasarte-Oriako, Usurbilgo, Oiartzungo eta Antzuolako zinegotzi izandako Ricardo Ortega, Imanol Azpiroz, Enrike Lekuona eta Joxe Mari Iturbe. Aitortza jaso eta gero, Intxaurrendietak hartu zuen

hitza: "Egoera ez da erraza: enpresa erraldoiak eta politikari ustelak daude erraustegiaren atzean, baina geratu genuen behin, eta lortuko dugu berriro".

Erraustegiaren aurkakoa eta beste iraultza batzuk egosi dituzte asteburuan, Iraultza Txikien Akanpadan. Gune aske bat sortu, eta hamaika gai jorratu dituzte Euskal Herri osotik etorritako pertsona eta eragileek, baita herrigintza egiteko ereduak ere. Gorpuzteko denbora beharko dute plazaratutako ideiek eta egitasmoek, baina osagai guztiak eltzean daude honezkero.

IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA EGIN DUTE ZUBIETAN: HAMAIKA GAI JORRATU DITUZTE ASTEBURUAN ZEHAR

Udalak webgune "gardenagoa" jarri du martxan

Lasarte-Oriako Udalak webgune berria du asteazkenetik. Udal ordezkariak eta teknikoak azaldu dutenez, webgunea erabilerraza da eta gailu ezberdinetara moldatzen da. "Gardentasunari buruzko azterketa egin eta ehuneko oso txikia lortu genuen. Webgune honen bitartez Udalaren kudeaketa gardena izatea nahi dugu", adierazi du alkateak.



Udalaren kudeaketari buruzko informazio guztia eskuratu ahalko dute herritarrek atalen bitartez. Gainera, "gune bizia" izango da; herritarren iradokizunak eta atalen bisitaldiak izango dituzte kontuan eraberritzeak egiterakoan.



TXINTXARRI

'Borobilean' hobeto ikusten da

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Zubietako eskolaraino joan dira Borobilean diskoa aurkezteko. Diskoaren zati handi bat Zubietan bertan grabatu dute, eta eskola txikiko komunitatea protagonista izan da.

EH Bildu, udal hauteskundeak prestatzeko prozesuan

Lasarte-Oriako EH Bilduk Batzar Ireki bat egingo du urriaren 3an, arratsaldeko zazpitan, 2019ko udal hauteskundeak lantzeko. Hautagai zerrendak eratzeko prozeduraren inguruko erabakiak hartu eta hautagaien inguruko irizpideak zehaztuko dituzte. Herritarrek Batzar Ireki horretan parte hartzera gonbidatzen ditu EH Bilduk.



FARAE eta Semblante Andaluzeko kideak, udal ordezkariekin, jaialdiaren aurkezpenean. TXINTXARRI

FARAEk hirugarrenez egingo du jaialdia herrian

Egun osoko egitaraua izango da larunbat honetan Andaluziako Elkarte Erregionalen Federazioak antolatutako jaialdian. Goizean mezarekin hasiko dute. Aurrekua dantzatu diete, eta gero hasiko dira musika emanaldiak; iluntzera arte iraungo du

Txintxarri

FARAE Euskadiko Andaluziako Elkarte Erregionalen Federazioak ongi ezagutzen du Lasarte-Oria. Behin baino gehiagotan izan da herrian, Semblante Andaluzen eskutik, urteroko jaialdia antolatzen. Aurten berriz ere girotuko ditu kaleak eta plazak; larunbaterako, hilaren 29rako, egun osoko egitaraua prestatu dute. 11:00etan mezarekin hasi eta iluntzera arte, dantzatzeko eta abesteko aukera egongo da. Aurrekua dantzatu diete Erketzeko Ruben Arranz eta Amaia Caballerok. Otordua ere ez da faltako. Federazioa osatzen duten hamahiru elkarteetako kideek jarriko diote doinua asteburuari. Michelingo kirolgunean izango da festa.

Jesus Zaballos alkatearekin eta Maite Iglesias Kultura zinegotziarekin batera aurkeztu du ekitaldia Juan Gracia FARAEko presidenteari. Semblante Andaluzeko Jose Mari Mellado ere izan da.

Esku zabalik hartu dute ekimena udal ordezkariak: "Herri hau den bezalakoa da jaioterria utzi behar zutenei esker, haiek eraiki baitute gaur egungo Lasarte-Oria", adierazi du Zaballosek. Andaluziatik etorritako komunitatea garrantzitsua da herrian; orain mende laurden baino gehiago osatu zuten Semblante Andaluz elkarteak. Gainera, ekintza mordo antolatzen dituzte urte osoan.

29. jaialdia izango da FARAEren aurtengoa. Orain lau urte egin zuten azkeneko aldiz Lasarte-Orian. Barakaldo, Audio, Gasteiz, Durango, Sestao, Santurtzi, Portugalete, Arrasate, Ermua eta Errenterriako elkarteetako kideak bilduko dira herrian. Horiek dira,

MICHELINGO KIROLGUNEAN EGUN OSOKO EGITARAUA PRESTATU DUTE, BAZKARIA ETA GUZTI

hain zuzen, ikuskizuna eskainiko dutenak. Graciak azaldu duenez, elkarte bakoitzak bere errepertorioetik zati txiki bat besterik ez du joko. "Bestela egun batzuetako egitaraua izango litzateke, amaiezina". Talde bakoitzak hamabost bat minutu izango ditu. 600-700 pertsona etorriko dira kanpotik herrira larunbatean.

Eguneko izarra

Eguneko emanaldi nabarmenena 19:00etan izango da, Graciak azaldu duenez. Sonsoysal taldeak flamenko kontzertua emango du. Ordu eta erdi ingurukoa izango da saioa. "Malagatik etorriko dira. Oso onak dira".

2003. eta 2014. urtean ere hartu zituen Lasarte-Oriak FARAEko jaialdia. Melladok azaldu du zergatik hartu dituzten berriro horren goiz. "Berez ez zegokion Semblanteri antolatzea. Baina FARAEk eskaini zigun berriro egitea, eta udalaren babesa izan dugu".

Hamaika ekintza, Lasarte-Oriako adineko pertsonen omenez

Astebeteko egitaraua osatu dute urriaren 1etik aurrera, herriko adineko pertsonen parte hartu eta gozatzeko

Txintxarri

Urriaren 1etik 8ra, Lasarte-Oriako pertsona adinduek haien omenezko astea izango dute.

Biyak Bat elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatuko du egitaraua. Lehiaketak, ibilaldi neurtua, emanaldiak, bazkaria... ekintza ugari izango dira herriko adineko pertsonen zuzenduak.

Jesus Zaballos alkatearen hitzetan, "ekintza asko daude egitarauan, eta guztien gustoko izatea espero dugu".

Era berean, egitaraua prestatzen lagundu duten guztiei eskerrak eman dizkiete Biyak Bat elkarteak kideak.

Astelehenean, urriaren 1ean hasiko dira ospakizunak bandera igoztearekin. Egunero izango da ekintzaren bat.

Alkateak urriaren 7an, Michelingo kirol gunean egingo den bazkariko izena ematearen berri eman du. 360 bat pertsonen

eskuratu dute tiketa, baina oraindik lekua dago. Horregatik, herritarrek gonbidatu ditu bazkarian eta beste ekintzetan parte hartzera. "Gogoratu bazkariko prezioa Lasarte-Oriakoentzat sinbolikoa dela".

Horrez gain, ospakizunei amaiera emateko, urriaren 8an, astelehenean, aurten urrezko ezteiak egin dituzten bikote bazkideen eguna izango da. Biyak Bat elkarteak kideek azpimarratu legez, ekintza horrek bat egiten du elkartearen 40. urteurren egunarekin.

Lehiaketako eta ibilaldi neurtuko izena emateak martxan dira elkarteak bulegoan, dantza lehiaketakoa izan ezik. Urriaren 6an egingo da, lehiaketa baino lehen. Ibilaldi neurtuko inskripzioa gaur, irailaren 28an itxiko da; bingoarena berriz, urriaren 1ean, astelehenean.

Barre-argarek eta musikak ordezkatu dute gautxorien loa

Gaueko ordu txikietara arte luzatu zuten festa herritarrek pasa den asteburuan. Oso Fan taldearen doinuekin dantzatzen ekin zioten; barre-argaraka segitu zuten gero, kultur etxean, Alazne Etxeberriaren eta Asier Hormazaren bakarrizketekin, eta Solo Fabiolo antzerkiarekin; eta, bukatzeko, dantza, Eddi Mae DJaren doinuekin.



Rafael Mazaren Solo Fabiolo. TXINTXARRI

Iraupen luze eta motzeko ikastaroak, Gaztelekuan

Gaztelekuko ikastaroak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Gitarra, breakdance eta shuffle eta laguntza eskolarra izango dira ekainera arte eskainiko diren saioak. Parkour, autodefentsa feminista eta eskuko telefonoarekin bideoklipak grabatzeko saioak, berriz, urritik abendura izango dira.

Parkour ikastaroa bi taldeetan banatuko da, bata 12 eta 15 urte artekoa, eta bestea 16 eta 30 urte artekoa. Saioetan teknikaz gain, gizalegezko balioak ere landuko dira, udal ordezkariak azaldu dutenez. Honez gain, parte-hartzaileek kamiseta bereizgarria jantziko dute, eta parkour egiteko guneak mugarrizko dituzte.

Izena ematea gaur, irailak 28tik urriaren 5era arte egin daiteke, Gaztelekuko bulegoan.

Podiumetik jaitsi gabe Jaizkibelgo igoeran

Iñaki Racamondek eraman du klase 1eko saria, eta Mikel Kortajarena izan da bigarren. Pablo Mugak azken unean galdu du lehen postua 2 klasean; bigarren egin du. Eguraldi ona lagun, "autoez eta giro paregabeaz" gozatu dute lagun artean

Adrian Garcia

Udan ez dute entrenatzeko aukerarik izan, baina sasoa ez dute galdu Lasarte-Oriako pilotuek. Joan den asteburuan Jaizkibelgo igoera jokatu zuten, eta emaitza onekin bueltatu ziren etxera. Baita oso-osorik ere. Mikel Kortajarenak lehenengo Jaizkibelgo igoera zuen; bigarren lasterketa guztira, uda aurretik Aiako igoeran egin baitzuen debuta. "Hasieran urduri nengoen, baina gustura ibili nintzen". Bigarren egin zuen, Iñaki Racamonde herritarraren atzetik. Pablo Muga zubietarrak beste kategorian batean jokatu zuen, 2 klasean, eta hark ere bigarren egin zuen. Edonola ere, hirurek gozatu dute asteburuaz. "Eguraldi ederra, giro bikaina, eta auto izugarriak".

Beroketak egin ondoren, lehenengo txanda lasai hartu zuen Kortajarenak. "Eskapada bat ere izan nuen, baina pixkanaka autoari ohitzen joan



Iñaki Racamonde, saria jasotzen, haren semearekin. I. RACAMONDE

naiz". Aian ongi moldatu zen autoa, eta ez dio denbora horretan ukiturik egin. Egun batzuk lehenago joan zen Jaizkibelgo igoera ikuskatzera Mugarekin batera. "Baina errepidea irekita zegoen, lasai-lasai hartu genuen".

Lezotik Hondarribia alderako igoeran jokatu ohi dute txapelketa. Tranpatia da ibilbidea, bihurgune oso itxiak dituelako. "Ferra itxurako lau bihurgune daude. Aldapatxo bat ere bai".

Sei hamarrenengatik irabazi zuen Racamondek. "Martxa bat gaizki sartu nuen, eta neure buruarekin haserretu nintzen", dio Kortajarenak. 3:25 minutu behar izan zituzten igoera osatzeko.

Guztira lau aldiz egiten du pilotu bakoitzak ibilbidea. Lehen bi txandak entrenamenduk dira, eta ez du denbora kontatzen. Ondoren datoz bi txanda ofizialak. Lehenengo txanda ofizialean aurre hartu zuen Kortajarenak. Baina azkenekoan irauli zuen sailkapena Racamondek. Hark ere "gustura" egin zuen igoera, nahiz eta autoak "gerra pixka bat" eman. Entrenamenduko txandetan eta lehenengo ofizialean arazoak eman zizkion, baina azkenekoan konpondu, eta denbora onena egitea lortu zuen.

Istripuaren ondorioak

Eskarmentu handikoa da Racamonde, eta behin baino gehiagotan parte hartu du Jaizkibelgen. Iaz bost segundo azkarrago osatu zuen igoera. "Aurten berezia izan da. Iaz 3:20 minututan egin nuen. Baina uztailean istripu bat izan nuen lasterketa batean, eta ni ere ez nengoen guztiz ondo. Autoa konpondu behar izan nuen ere". Buruz ezagutzen ditu pilotuak bihurgune guztiak, eta badaki non frenatu behar duen, eta non abiadura bizian sartu. "Buruak esaten zidan azkarrago joan

nintekeela, baina iritsi eta nahi gabe mantsotu egiten nuen".

Muga ere pozik atera da lasterketatik, nahiz eta lehenengo postua galdu azken txandan. "Iazko denborekin alderatuta, segundo bat hobetu dut". 3:14ko denbora behar izan du guztira. Zortzi hamarrenengatik ez du lortu lehen saria. "Bihurgune batean galdu dezakezu denbora hori".

Hurrengo lasterketak

Automobilismoan lehen denboraldia amaitutzat eman du Kortajarenak. Klase leian jarraituko duen arren, autoa zertxobait hobetu nahi du. "Asmoa dut motorra ukitzeko, arauk uzten didaten neurrian".

Mugak eta Racamondek, ordea, ez dute denboraldia oraindik itxi nahi. Urrakin izango dira biak, ziurrenik. Zamudion ere aritzeko asmoa du Mugak. Racamondek, berriz, Urbasako igoera du buruan, urria hasieran. "Kantabrian lasterketa baten bat egitea ere gustatuko litzaidake, ikusiko dugu". Horretarako, asteburu honetan autoa prestatu beharko du, puntuan jartzeko.

KORTAJARENAK BUKATU DU DENBORALDIA. BESTE BIEK, ORDEA, URRAKI DUTE BEGIZ JOTA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL PREFERENTEA
Ostadar SKT - Astigarraga Mundarro Larunbata. 15:30. Michelinen.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Lengokoak - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Cesar Benito, Donostian.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Mondragon CF - Ostadar SKT Igandea. 18:30. Mojategi, Arrasaten.
JUBENILEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Lazkao KE Larunbata. 11:00. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Astigarraga Mundarro Larunbata. 12:30. Michelinen.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT B - Idiazabal Larunbata. 13:45. Michelinen.

Billabona - Ostadar SKT A Igandea. 11:00. Arratzain, Billabonan.
1. MAILA
Real Sociedad - Sevilla Igandea. 12:00. Zubietan.
2. MAILA
Aurrera Vitoria - Athletic Club Igandea. 11:30. Olanabe, Gasteizen.
San Ignacio SD - Añorga KKE Igandea. 12:00. San Ignacio, Bilbon.
2. B MAILA
Rapido de Bouzas - CF Fuenlabrada Larunbata. 18:30. Baltasar Pujales est., Vigon.
ARETO-FUTBOLA
ESTATUKO 3. MAILA
Aurrera Vitoria - Antiguoko KE Larunbata. 18:00. Olanabe, Gasteizen.
GIPUZKOAKO 1. MAILA
Oiartzun KE - Aldaz Hertz Klinika Larunbata. 18:30. Elorsoro, Oiartzunen.

JUBENILEN LIGA
Bar Lasarte - Antigua Luberrri KE Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kir.
SASKIBALOA
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Inar Optika ISB - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Azkoitiako kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Goierri Oxylor Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
PILOTA
PROFESIONALA, LAU T'ERDIKOA
Artola - Arteaga II Gaur. 22:00. Izarraitz, Azpeitian.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA
Intza - Tolosa Larunbata. 16:00. Michelinen. Arratsaldeko 2. partida izango da.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA
Intza - EPLE 1 Larunbata. 16:00. Michelinen. Arratsaldeko 1. partida izango da.

BTT
LEITZULIA
Herriko txirrindulari batzuek Leitzulia probaren hirugarren edizioan parte hartuko dute. Larunbata. 09:00. Leitzan.
LASTERKETA
XVIII. JOSETXO IMAZ MEMORIALA
Herriko lasterkari batzuek Josetxo Imaz Memorialaren hemezortzigarren edizioan parte hartuko dute. Igandea. 11:00. Ordizian.
PIRAGUISMOA
MUNDUKO TXAPELKETA
Maialen Chourraut piraguista Munduko Txapelketan parte hartzen ari da, ongi ezagutzen duen Rio de Janeiroko kanalean. K1 modalitatean lehiatzen ari da. Gaur. Finalerdiak. 15:50etik 16:50era. Final handira sailkatuz gero, bihar goizean ariko da Chourraut, 09:38etik 10:10era. K1 modalitatea.

ERRUGBIA
OHOREZKO MAILA
La Vila - Hernani CRE Igandea. 12:00. El Pantano, Valentzian.
OHOREZKO B MAILA
El Salvador - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:00. Pepe Rojo estadioa, Valladoliden.
SENIOR MAILA
Hernani/Txingudi/Athletico SS - Getxo Artea RT Larunbata. 16:00. Landare, Hernanin.
EUSKAL LIGA
Beltzak/Zarautz - Iruña RC Larunbata. 17:30. Michelinen.
18 URTEZ AZPIKOEN LIGA
Getxo Artea RT - Beltzak/Zarautz Igandea. 11:30. Fadura, Getxon.
16 URTEZ AZPIKOEN LIGA
Getxo Artea RT - Beltzak/Zarautz Igandea. 10:00. Fadura, Getxon.



Nahia Zudaire gazteak udaberriko zein neguko ligetako lehen sariak irabazi ditu 2017/2018ko igeriketa galan. BURUNTZALDEA IKT

lazko lanaren saria jasota, denboraldi berria hastera

Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak protagonista izan dira 2017/2018 denboraldiko galan. Bederatzi sari jaso dituzte denera: zortzi bakarkako eta taldeko bat. laz egindako lan bikainaren uzta jasota, are gogotsuago ekin diote sasoi berriari

Txintxarri

Euskal Herri osoko eta nazioarteko igerilekuan iaz sartutako ordu kontaezinek eman dute fruitua. Txapelketetako dominez eta lortutako marka berriez harago, 2017/2018 sasoioko igeriketa galan hainbat sari irabazi dituzte Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak: zortzi bakarkako eta taldeko bat. Gipuzkoako Igeriketa Federazioak antolatzen du ekitaldia.

Ordiziako Herri Antzokian elkartu ziren guraso, ahaide eta lagunak gogotik txalotu zuten igerilariak egindako lana. Txema Zumarraga, Xabier Infante eta Javier de Aymerich entrenatzaileak ere omendu zituzten; hainbat urtez kirolariak prestatzen aritu ostean erretiroa hartu dute hiruek. Tolosaldea, Aloña Mendi eta Konporta klubetan aritu dira, hurrenez hurren. Hiruen ibilbide urteak pilatuta, mende batez baino gehiagok aritu dira belaunaldi askotako igerilariak prestatu

eta trebatzen. Mundu mailan igerian aritzen diren Jessica Vall eta Lidon Muñoz ere joan ziren galara.

Bederatzi sari, bi ligatan

Buruntzaldea IKTko bost igerilari altza ziren garaikurrak jasotzera. Igerilekuko ligetan aritzen dira hiru, eta ur irekietakoan beste biak. Bederatzi sari irabazi zituzten denera.

Nahia Zudaire igeriketa egokituan aritzen da. Sekulako denboraldia osatu zuen iaz, Dublingo Europako txapelketan lehiatzeraino. Abuztu erdialdean aritu zen, sekulako maila erakutsiz: parte hartu zuen proba guztietan sailkatu zen finalera, eta bost marka pertsonal berri

2003AN JAIOTAKO NESKEN DENBORALDI AMAIERAKO LEHEN SARIA IRABAZI DU LEIRE MARTINEK

lortu zituen. 14 urterekin, txapelketako igerilari gazteena izan zen. Bi sari jaso zituen pasa den asteburuko galan: neguko eta udaberriko ligakoak, igeriketa egokituko kategorian; 1.188 eta 3.302 puntu pilatu zituen.

Neguko Ligan sari gehiago irabazi ditu Buruntzaldea IKTk. Esaterako, taldekako lehiaketan bigarrena izateagatik. Garaikur indibidualak ere bai: infantil mailan Leire Martin izan da txapelduna; ahizpa Ainhoa, berriz, hirugarrena. 152 eta 114 puntu batu zituzten. Taldeka ere lan ederra egin zuten infantilek, eta bigarren saria irabazi dute, 647 punturekin.

2003an jaiotako nesken artean, denboraldi amaierako sari nagusia eraman du etxera Leire Martinek, eta hirugarrena ahizpa Ainhoak.

Itsas zeharkaldien ligan, E kategorian, txapeldunorde izan da Nerea Santos. Iker Felipe ere ederki aritu da, eta hirugarren postua lortu du.

Iraia Iparragirrenen golak ireki du partidari buelta emateko bidea

Balentria egin du Realak, 2-0eko emaitza azken bost minututan iraulita; bederatzitik zazpi puntu bildu ditu

Txintxarri

Bazirudien Realak denboraldiko lehen porrota jasango zuela Logroñoren aurkako neurketan: 2-0 ari ziren galtzen zuri-urdirak, partida amaitzeko bost minuturen faltan. Orduantxe ireki zuen Iraia Iparragirrek markagailuari buelta emateko bidea. Inor baino azkarrago ibili zen kórner batean; buruz errematatu eta 2-1ekoa sartu zuen. Hiru minutu geroago berdindu zuen Realak, beste defentsa baten gol bati esker: alboko falta bat sareratu zuen Maddi Torrek, buruz baita ere.

Asteburuan lortutako urrezko puntuarekin, bederatzitik zazpi pilatu ditu Gonzalo Arconadaren taldeak; bigarren postuan da.

Jardunaldia gazi-gozoa izan da Bigarren Mailan ari diren taldeentzat. Athleticek 5-0 irabazi dio Mulierrri. Añorgak, berriz,



Iraia, gola ospatzen. SANDRA AYALA CANO

galdu egin du Eibarren aurka, 1-5. San Ignacioren aurkakoan bilatuko dute errebantxa.

Ostadar SKTk ezin hobeto ekin dio Ohorezko Erregional ligari: Goierri Gorriri 1-2 irabazi dio, Noraren eta Kiararen golei esker.

Chourraut, finalaren bila

Munduko txapelketako final handira sailkatzea bilatuko du gaur Maialen Chourraut piraguistak. Gaur, ostiralez ariko da finalerdietan, arratsaldean, 15:50etik 16:50era. Sailkatuz gero, bihar jokatu luke final handia, goizean, 09:38tik 10:10era. Asteazken arratsaldean lortu zuen finalerdietarako txartela: 95.96 segundoko denbora eginda, bigarren postuan sailkatu zen, Jessica Fox australiarren atzetik.



LALIGA4SPORTS

Denboraldiko lehen garaipena lortu du Babyauto Zarautzek

Eibarren aurkako derbian lortu du Babyauto Zarautzek denboraldiko lehen garaipena: 38-19. Hainbat lasarteoriatar ari dira jokatzeko Ohorezko B mailan ari den taldean: Ander eta Xabier Rekondo anaiek eta Adrian Apaolaza. Errugbia bihar bueltatuko da Michelinera: Euskal Ligako Beltzak ZRT taldeak Iruña RCren aurka jokatu du, 17:30ean.

Artolaren aurka ariko da Arteaga II.a, lau t'erdiko txapelketan

Kanporaketa interesgarria gaur Azpeitiako Izarraitz frontoian. Artolak eta Arteaga II.ak neurtuko dituzte indarrak; udan ederki aritu dira biak, eta sasoioko iristen dira kanporaketara. Irabazten duenak lau t'erdiko txapelketan jokatzeko txartela lortuko du. Jaialdia 22:00etan hasiko da; gaueko aurreneko neurketa izango da hori.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Iñaki
Zorionak!! Zure urtebetetzeko ospakizunak eta gero, ezkontzarako indarrak izatea espero dugu!! Ongi pasa!! Tkakuneko lankideak



Malu eta Felix
Zorionak Malu eta Felix! Irailaren 28an 50. urteurren ospatuko duzuelako. Ondo pasa ezazue eta egunaz gozatu! Besarkada handi bat zuen senide guztien partetik.



Oihane
Zorionak printzesa zure zortzigarren urtebetetzeari!! Oso ondo pasa zure egunean. 8 muzu haundi aita, ama eta iraideren partetik.



Jose Luis, Eneritz, Aizpea eta Malen
Zorionak laukote!!! Urte askoan!!! izugarri maite zaituztegu! Muxu bat familiaren partetik.



Ekain
Zorionak maitia. 6 super muxu erraldoi, asko maite zaitugu. Amaiur, aitako eta amaxoren partetik.

JAIOTAKOAK

Noa Vicente Blanco. Irailaren 17an.

HILDAKOAK

Luis Barrantes Duro. Irailaren 26an.
Juan Jose Manuel Dieguez. Irailaren 23an.
Jesus Aurelio Dopazo Ares. Abuztuaren 13an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 28	DE MIGUEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 29	GANDARIAS-URIBE	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 30	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 1	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Astearte, 2	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 3	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 4	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zembakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN
Loidibarren parkinean, BIn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811

Logela bakarreko apartamentua alokatzen da Iñigo de Loiolan (Eroski ondoan). Laugarren solairuan da eta igogailua badago. Urria hasieratik aurrera izango da alokatzeko aukera. 616 164 823.

LANA

ESKAINITZA
Kamarero eta Sukaldari Laguntzailea behar dira Aratz Erretegian. Bidali zuen kurrikuluma info@restaurantearatz.com -ea.

SALEROSKETAK

Mobile home bat salgai. 4/6 pertsonentzat. 8x3,5 m. Harremanetarako telefonoa: 686 245 146.

Kotxe berria saltzen da, Mikrokorr marka, kametik gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

HEZKUNTZA

Klase partikularrik eman edota haurrak zainduko nituzke. 609 259 102

OHARRAK

Tabernei deialdia Euskal Jaietan

Azaroaren 10ean izango dira Euskal Jaiak. Herriko taberna guztiak gonbidatzen ditu Euskal Jaien Lantaldeak festa eguneko egitarauan parte hartzera. Alde batetik, pintxo-potea eginez. Bestetik, gaua girotzeko ekitaldi bereziak antolatuz, betiere Euskal Jaien ezaugarriak kontuan hartuta.

Udaleku eta Txokoetako arropa galdua

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako txoko eta udalekuetan egon diren haurren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke elkarteko bulegora.

Arropa urriaren 1etik 11ra arte jaso ahal izango da bulego ordutegian: astelehen arratsalde 16:00tik 19:00etara, asteartetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00tik 19:00etara eta ostirala goiza 9:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak 2018/2019 ikasturteari hasiera eman dio, berrikuntza batekin: entsegu lekua. Ikasturte honetatik aurrera, Villa Mirentxun bilduko dira, astelehen eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:30etara umore onean abesteko.

Alboka Abesbatzak 15-55 urte bitarteko lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu entseguetara gerturatuz eta probatuz. Ez da beharrezkoa musika hizkuntza jakitea. Informazio gehiago junta@albokaabesbatza.com helbidean eskuratu daiteke.

Yoko-Garbi elkartean bazkide kanpaina

Zubietako Yoko-Garbi elkartean bazkide izateko azken tokiak geratzen direla jakitera ematen dute. Familia bonoak, jubilatuei deskontu bereziak, etab. daude. Elkartean egoitza berria Almandegi etxean izango da.

Izena ematea Almandegi jatetxean edo

yokogarbielkartea1@gmail.com helbidean egin behar da, urriaren 14-a baino lehen.

Informazio edo azalpen gehiago behar izanez gero, yokogarbielkartea1@gmail.com helbidean eskainiko dira.

Katekesi saioak hastear

San Pedro eta Arantzazuko Ama parrokietako katekesi saioak hurrengo asteetan hasiko dira.

San Pedro parrokian urriaren 6an, larunbatean 11:30an (LH1), 12:00etan (LH2) eta 12:30ean (LH3) izango dira. Arantzazuko Ama parrokian, berriz, LH1 urriaren 9an, 18:00etan; LH2 urriaren 10ean, 18:00etan eta LH3 urriaren 11an, 18:00etan izango dira lehen saioak.

Erketzen urteurren bazkaria

Erketz EDTren 50. urteurreneko txartelak salgai daude Patricio tabernan, Mendi-Rock tabernan eta Ormazabal lora-dendan. Urriaren 5era arte izango dira eskuragarri.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA FARAE topaketa. Euskadiko Andaluziako etxeek bat egingo dute Lasarte-Orian. Hirugarren aldiz egingo dute topaketa Lasarte-Orian. 500 bat pertsona bilduko dira. Meza, elkarteetako dantza taldeen eta koruen emanaldiak... denetarik izango da, elkarteetako kideen arteko harremanak sendotzeko. Michelin kirolgunea, larunbata egun osoa.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

El reino

Ostirala: 16:40, 19:25, 22:10, 00:50.
Larunbata: 16:40, 19:25, 22:10, 00:50.
Igandea: 16:40, 19:25, 22:10, 00:50.
Larunbata: 15:45, 18:15, 20:30, 22:40, 00:50.
Igandea: 15:45, 18:15, 20:30, 22:40.
Searching
Ostirala: 15:50,

18:10, 20:25, 22:45, 00:20.
Larunbata: 15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 00:20.
Igandea: 15:50, 18:10, 20:25, 22:45.
Predator
Ostirala: 20:20, 22:40, 01:00.
Larunbata: 20:20, 22:40, 01:00.
Igandea: 20:20, 22:40.
Johnny English: De nuevo en acción
Ostirala: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 01:00.
Larunbata: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 01:00.

Igandea: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15.
Todos lo saben
Ostirala: 16:30, 22:00, 01:00.
Larunbata: 16:30, 22:00, 01:00.
Igandea: 16:30, 22:00.
Yucatán
Ostirala: 19:20, 20:10.
Larunbata: 19:20, 20:10.
Igandea: 19:20, 20:10.
La monja
Ostirala: 15:50, 18:25, 20:35, 22:50, 00:45.
Larunbata: 15:50, 18:25, 20:35, 22:50, 00:45.

Igandea: 15:50, 18:25, 20:35, 22:50.
Megalodón
Ostirala: 15:45, 22:45, 00:55.
Larunbata: 15:45, 22:45, 00:55.
Igandea: 15:45, 22:45.
Alpha
Ostirala: 18:00.
Larunbata: 18:00.
Igandea: 18:00.
Los Increíbles 2
Ostirala: 17:50.
Larunbata: 17:50.
Igandea: 17:50.
Los futbolisimos
Ostirala: 16:10.
Larunbata: 16:10.
Igandea: 16:10.

OSTIRALA 28

URNIETA San Mielak

Urnietarrek San Miel jaietako haurren eguna antolatu dute:

10:30ean, Alkate Txikien izendapena, Udaletxea.

10:30etik 13:00etara, kirol txapelketak gazteentzat, Azkorte.

11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era, haur eta gaztetxo parkea, Egape ikastolako jolastokia.

16:30ean, mahai jokoen eta toka txapelketa, zahar etxea.

17:00etan, jokoak, eta haurren kontzejupeko eskupilota txapelketaren finalak, udaletxea.

17:30ean, Markeliñeren *Chef Nature* antzerkia, Etxeberri plaza.

19:00etan, Xaibor! Diskofesta txikientzat, San Joan plaza.

20:00etan, Alkate Txikien botere uztea, Udaletxea.

21:00etik 23:00etara, Oilasko-afaria, txosnagunea.

23:00etatik 02:00etara, Diskofesta Oihan Vegarekin, San Joan plaza.

23:00etatik aurrera, kontzertuak txosnagunea: Sad Mirri, Kea, IRA. Urnieta, egun osoa

USURBIL 6. Sagastiak loretan

Sagardoa bidegile dokumentala eskainiko dute.

Sutegiko auditorioa, 19:30ean.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA FARAE topaketa

FARAE Euskadiko Andaluziako etxeen XXIX. topaketa egingo dute:

11:00etan, topaketaren hasiera. Meza

rocieroa Semblante Rocieroren eskutik.

12:00etan, Semblante Rocieroren emanaldia.

12:30etik 13:30era, dantza ikuskizuna: Gitanillas del Alba eta Zambra dantza taldeak

Sestaoko El Olivo elkarteko Triana dantza taldea

Barakaldoko Hijos de Jaen elkarteko Sueños dantza taldea

13:30ean, agintariei, bazkideei eta gonbidatuei harrera. Agurra dantzatuko dute, Joseba Larrinagak aurkeztua.

14:30ean, agintari, bazkide eta gonbidatuen bazkaria.

17:00etan, dantzaldia (disco musika).

18:00etatik 18:40era, dantza eta kantu ikuskizuna:

Portugaleteko Raices dantza taldea

Errenteriako Aljarafe korua

Durangoko El Sur dantza taldea

Gasteizeko Seneca elkarteko Raices del Sur dantza taldea

19:00etan, Sonsoysal talde flamenkoaren kontzertua.

20:30ean, Topaketaren amaiera

Michelingo kirolgunea, egun osoa

URNIETA San Mielak

Urnietarrek San Miel egunerako egitarau zabala antolatu dute:

07:00etan, Zumba, San Joan plaza.

09:30ean, Probintzia mailako bolo txapelketa, Santa Kruz elkarteko bolatokia.

10:00etatik 13:00etara, Urnietako festetako II. pilpil erarako bakailao lehiaketa eta I. Maxter-Txef Txiki lehiaketa, jaietako karpa.

11:00etan, meza nagusia Mikel Goiaingeruaren eliza.

12:00etan, Udalaren omenaldia

Urnietako txistulariei. Txanbolin txistulari bandaren musika eta dantza emanaldia ikastetxeetako ikasleekin, San Joan plaza.

16:30etik 18:00etara, Holi Fest!, Plazido Muxika plaza.

18:00etan:

Trapu Zaharraren *Se fini!* ikuskizuna., San Joan plaza.

Dantzaldia Tropicana orkestrarekin, Plazido Muxika plaza.

Dj Kaborro, San Juan plaza.

18:30ean, RKeR elektrotzaranga Idiazabal kalean zehar.

19:00etan, Urdanbor Danborradaren irteera Plazido Muxikatik.

22:30ean, Bertso saioa, Sarobe: Andoni Egaña, Eli Pagola, Agin Laburu eta Miren Amuriza.

Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

23:30ean, Kontzertuak txosnagunean: Kaotiko, Garilak 26.

24:00etatik 02:00etara eta 02:30etik 04:00etara, London orkestra, San Juan plaza.

Urnietak, egun osoa

ASTIGARRAGA Sagar uzta jai

Sagar uzta jaiaren barruan:

09:30ean, sagar motak ezagutzeko txangoa Santiagomendin zehar.

Txangoan aurrez izena eman behar da: 943 550 575.

10:00etan, sagar uzta erronka indoor, Foru plaza.

Astigarraga, goizean zehar.

USURBIL Sagastiak loretan

EH-ko 4. Sagardo Txapelketa herrikoia finala izango da. 6. Sagastiak loretan ekimenaren ekintza.

Frontoian, 20:00etan.

IGANDEA 30

URNIETA San Mielak

Urnietarrek San Miel jaietako azken eguna dute:

07:00etan, Orkresta elektrotzaranga kalean zehar.

10:00etan, Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.

11:00etan, haurren danborradaren hasiera.

17:00etan, Stunt motor ikuskizuna, Idiazabal kalea.

17:30ean, kontzertu akustikoak, txosnagunea: Apalatxe, Olatz Salvador.

18:00etan, Erraldoi eta Buruhandien kalejira San Joan Plazatik hasita.

18:30ean, XXIV. Martin Mujika Pilota jaialdia, erremontea eta eskupilotako afizionatu maila.

19:00etan, Dantzaldia Lisker taldearekin, San Joan plaza.

20:30ean, dantza-Soka herrikoia, Mielari agurra, zezen suzkoa eta azken traka, San Joan plaza.

Urnietak, egun osoa

ASTIGARRAGA Sagar uzta jai

Sagarraren jai egingo da: muztioa egitea, txalaparta, kirikoketa, sagar dantza, sagardo eta muztio dastaketa, etab.

Foru plaza, goizean zehar.

ASTELEHENA 1

LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

Adinekoen omenezko astea

16:00etan, bandera igoera trikiritxak girotua, Biyak Bat egoitza

16:30ean, pote, toka eta igel lehiaketak, Isla plaza.

18:00etan, bingo lehiaketa, Biyak Bat egoitza.

20:00etan, sari-banaketa, Biyak Bat egoitza.

Biyak Bat egoitza eta Isla plaza, 16:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 2

LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Gimnastika erakustaldia egingo dute elkarteko kideek.

Kiroldegia, 16:00etan.

ASTEAZKENA 3

LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Zirriborro clown ikuskizunaz gozatuko dute.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Batzar irekia

EH Bilduk 2019 urteko hauteskudean prestatzeko Batzar irekia egingo du.

Villa Mirentxu, 19:00etan.

OSTEGUNA 4

LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Biyak Bat elkarteko eta Añorgako Gure-kabia elkarteko abesbatzek emanaldia eskainiko dute.

Brigitarren komentua, 18:30ean.



LASARTE-ORIA
UDALA

EUSKARA
BATZORDEA



Zorionak eta mila esker txintxarri, 25 urte hauetan herritarrek euskaraz informatzen egindako lan erraldoiarengatik



URRIAREN 7AN

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideek: **10€**
Gainontzekoek: **12€**

Zatoz gurekin autobusez!
Lasarte-Oriatik Urretxu-Zumarragara

Ordutegia:

Irteera: 09:00etan Atsegindegin (Hernani)
eta 09:15etan Tajamar biribilgunean
(Lasarte-Oria)
Buelta: 19:00etan Urretxu-Zumarraga

Izena emateko:

Urriaren 4ra arte
Geltoki kalea 4 (Lasarte-Oria)
943 37 14 48
kultura@ttakun.eus

Antolatzaileak



Komertzioari bizitza emanez zeure herriari ere ematen diozu!
Erosi Lasarte-Orian!

